

Talde bakarra Ipar Euskal Herrian?

Top14an elkar helduta lehiatzerik izango luketen aztertzen ari dira Biarritz eta Baiona.

| JON TORNER ZABALA |

“BIARRITZ OLYMPIQUE eta Baiona errugbi klubetako presidentek, eta haien babesle nagusiek (Capgemini, Alain Afflelou), euskal izaeradun talde bakarra osatzeko aukerak aztertuko dituzte. Aurrera begirako elkarrizketa eta analisiak emango dizkigute balizko proiektuaren bideragarritasunari buruzko argibideak”.

Bi taldeek plazaratutako prentsa-oharrak errugbi mundua astindu du —elkar gehiegi maitatzen ez duten taldeak dira Biarritz eta Baiona—, baina badira arrazoiak bateratzearen berri orain emateko, Laurent Zègre kazetariak *Sud Ouest* agerkarian azaldu duen moduan:

Izaera administratibo berria

“Fusio” terminoa ekidin duten ordezkarien hitzetan, bi klubek lau hilabeteko epea dute egitasmoaren bideragarritasunari buruzko auditoria egin eta datorren denboraldian Top14an elkar helduta lehiatzerik izango luketen jakiteko. Ondoren erabakiko dute proiektuari zein izaera administratibo eman, bi klubek



Biarritz (zuri-gorritz) eta Baionaren (zuri-urdinez) arteko derbirik ez al da izango aurrerantzean?

historia aintzat hartuta. Bakoitzaren identitate berezia medio, ezinezkoa dirudi talde batek bestea xurgatzea. Ziurrenik hirugarren elkarte bat sortuko dute.

Zergatik orain?

Top14 ligaren sailkapenari begiratzea besterik ez dagoela dio kazetariak. Hamabigarrena da Baiona, eta azkena Biarritz. Liga gogorra da Frantziakoa, aurrekontu handia eskatzen

duena, eta jaitsieraren amildetia behera ez jausteko, Baionak eta Biarritzek ezinbestekoa dute haien diru-poltsak handitzea.

Aurrekontuen sailkapenean, zortzigarrena da Baiona (18 milioi euro), eta hamargarrena Biarritz (ia 17 milioi euro). “1+1 ez dira beti 2, baina errazago lortuko dugu elkar helduta”, adierazi du Alain Afflelou enpresariak.

Zein izen izango du? Zein kolore? Non jokatu du?

Galdera horiek airean daude oraindik. Datozen hilabeteetako elkarrizketek esango dute bi taldeak adostasun

batera helduko diren ala ez; eta klubetako agintari, babeste eta zaleak kezkatzen dituzten kontuen inguruko erabakiak zeintzuk aseko dituzten, eta zeintzuk haserrarazi. Gaur gaurkoz, *Sud Ouest*-en galderari (“Fusioaren alde al zaude?”) erantzun dioten internauten %58ak baietz esan du, eta %33ak ezetz (%9ak ez dakiela erantzun du). ■



Gora bertsolari ausartiak!

· JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI ·

Donostia - alde zaharra

www.afuegonegro.com